

# **HIZKI-MARRAZKI IPUIN MARRAZTUEN LEHIAKETA 2010**



ANOETAKO UDALA



1. PARTE HARTZAILEAK: Anoetako Ikastolako ikasleak edo Anoetan erroldatutako pertsonak.

2. KATEGORIAK:

A: LH3-LH4      B: LH5-LH6      C: DBH1-DBH2  
D: DBH3-DBH4      E: GAZTE ETA HELDUAK

3. IPUIN MARRAZTUEN EZAUGARRIAK

- Lanak testuz eta marrazkiz osatuak izango dira. Biei garrantzi bera emango zaie ipuinak baloratzeko garaian.
- Lanak bakarka edo binaka egin ahal izango dira.
- Lehiakide bakoitzak gehienez ere lan bakarra aurkeztuko du, inon argitaratu gabea eta inongo lehiaketatan saritu gabea.
- Hizkuntza: euskara.
- Gaia: norberaren esku.
- Luzera: A/B kategorietan gutxienez orrialde bat, eta gehienez hiru, eta C/D/E kategorietan gehienez lau, marrazkiak barne (gutxienez marrazki bat, gehienez hiru). Marrazkiak testuan txertatuta edo txertatu gabe joan daitezke.
- Aurkezteko modua: Testua eskuz edo ordenagailuz. Ordenagailuz aurkezten bada, letra gutxienez 12ko tamainakoa. Marrazkiak eskuz eginda izango dira, eta aurkezteko bi modu daude:
  - Aparte aurkeztu, argi adieraziz marrazki bakoitza non txertatu behar den testu barruan.
  - Marrazkiak eskaneatuta eta txertatuta testuaren barruan.

4. IPUIN MARRAZTUAK AURKEZTEA

- Tokia: ikastolan (ikastolako ikasleak direnak) edo udaletxean/kiroldegian (gainerakoak).
- Epea: martxoaren 5a, ostirala.
- Nola aurkeztu:

**Ikastolako ikasleek** ikastolan entregatu behar dute lana, goiko aldean ipuinaren izenburua eta egilearen goitizena jarrita.

**Gainerakoek** udaletxean edo kiroldegian.

- Gutunazal baten barruan ipuin marraztua sartuko da, eta kanpoaldean hau idatziko da: “Hizki-Marrazki Ipuin Lehiaketa 2010”, egilearen goitizena eta kategoria.
- Bigarren gutunazal baten barruan egilearen (edo egileen) datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa), eta kanpoaldean hau idatziko da: “Hizki-Marrazki Ipuin Lehiaketa 2010”, egilearen goitizena eta kategoria.

5. EPAIMAHAIA

- Epaimahai aditu batek erabakiko du zeintzuk diren lan sarituak.
- Sariak eman gabe utzi daitezke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek behar adineko kalitaterik ez badute.

6. SARIAK

A kategoria: bonoak Kuku-Loren edo Iraolan erosteko.

1. saria: 50 €      2.saria: 40 €      3. saria: 30 €

B kategoria: bonoak Kuku-Loren edo Iraolan erosteko.

1. saria: 60 €      2. saria: 50 €      3. saria: 40 €

C kategoria: 1.saria: 70 €      2.saria: 60 €      3.saria: 50 €

D kategoria: 1.saria: 80 €      2.saria: 70 €      3.saria: 60 €

E kategoria: 1.saria: 90 €      2.saria: 80 €      3.saria: 70 €

- Lan sarituak udalaren eta ikastolaren esku geratuko dira, eta argitaratu egingo dira. Horregatik, saritutako lanen jabeai ipuina formatu digitalean eskatuko zaie.
- Sarituak izan ez diren lanak apirilaren 30a baino lehen jaso ahal izango dira.
- SARI BANAKETA apirilaren 23an –ostirala- izango da, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

**OHARRA:**

*Parte hartzeak baldintza hauek onartzen direla adierazten du, eta baita epaimahaiaren erabakia ere.*